# PREMIAZKO eta EZ OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2011IPLE0011
**Eguna:** 2011-06-30
**Ordua:** 19-30 -19:40
**Tokia:** Areto nagusia

## Bertaratuak

| | |
|---|---|
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | Bildu |
| - Maite Olatziregi Esparza | Bildu |
| - Agin Rezola Laburu | Bildu |
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | Bildu |
| - Berta Arocena Vergara | Bildu |
| - Isabel Otero Glorie | Bildu |
| - Raul Redín Hernández | Bildu |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ-PNV |
| - Imanol Lizarralde Marín | Hamaikabat |

## Bertaratu ez direnak

| | |
|---|---|
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | Hamaikabat |

## Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

## Aztergaiak

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **Premiazko izendapena onarzea** | **1** | Declaración de urgencia del Pleno |
| **Mozioa: "Bateragune" auzia** | **2** | Moción: juicio "Bateragune" |

## Esan-eginak eta erabakiak

**1. <u>Premiazko izendapen onartzea</u>**

Alkateak ezohiko eta premiazko Osoko

**1. <u>Declaración de urgencia del Pleno</u>**

El alcalde formula al Pleno la declaración

Bilkura egiteko premiazko deklarazioa egin dio Osoko Bilkurari laster amaituko den Bateraguneko epaiketa dela-eta, izan ere, epaiketa horretan gure Udaleko zinegotzi ohi bat inputatuta baitago.

de urgencia para la realización del pleno extraordinario y de urgencia con motivo de la próxima finalización del juicio Beteragune en la que está imputado un exconcejal de este ayuntamiento.

Premiazko deklarazioa bozkatu ondoren, onartu egin da Bilduko korporatiboen aldeko 7 botorekin, EAJ/PNVko 2 abstentzio-botorekin eta Hamaikabateko kontrako boto batekin.

Sometida a votación la urgencia es aprobada con 7 votos a favor de los corporativos de Bildu, 2 votos de abstención de EAJ/PNV, y un voto en contra de Hamaikabat.

**2. <u>Mozioa: “Bateragune” auzia</u>**

**2. <u>Moción: juicio “Bateragune”</u>**

Alkateak ekainaren 29an erregistratutako mozioa aurkeztu du eta honako hau da mozioaren hitzez hitzeko edukia:

El alcalde presenta la moción registrada con fecha 29 de junio cuyo contenido literal es:

**Egun hauetan Madrileko Auzitegi Nazionalean burutzen ari den “Bateragune” deritzon epaiketaren aurrean, Bilduko udal taldeak Udal honetako Osoko Bilkurak bere egin dezan honoko adierazpen instituzionala aurkezten du:**

**Ante el juicio denominado "Bateragune" que estos días se está celebrando en la Audiencia Nacional de Madrid, el grupo municipal Bildu presenta la siguiente declaración institucional para que el Pleno la asuma:**

Epaiketa politikoa da honakoa, xede politiko nagusi bati erantzuten diona: herri honetan **zabaldu den garai politiko berria oztopatzea** eta garai politiko berri **hau zabaltzen ahalegin berezia egin duten hainbat ordezkari politiko zigortzea**. Hori da eta ez besterik epaiketa honen oinarria.

Se trata de un juicio político que responde sobre todo al siguiente objetivo político: **obstaculizar la nueva etapa política que se ha abierto** en nuestro pueblo y **castigar a algunos representantes políticos que han hecho un especial esfuerzo para que se abriera** esa etapa política nueva. Esa es la única base de ese juicio.

Epaiketa honen eta Entzutegi Nazionalean zain dauden beste hainbat epaiketen **helduleku juridiko bakarra Alderdien Legea** da, urteotan herri honen ordezkaritza politiko eta sozial garrantzitsu baten parte hartze legalari bidea ixteko garatu izan dena, milaka herritarren eskubideak zapuztuz eta hamarnaka

La **única base jurídica** de este juicio y de otros juicios de la Audiencia Nacional que están por celebrar es la **Ley de Partidos**. Esa Ley se ha desarrollado para cerrar durante estos años el camino a la participación legal de una parte importante de la representación política y social de este país, vulnerando los derechos de

ordezkari politiko atxilotu eta espetxeratuz. Estrategia honek ezezko borobila jasotzen du egun herri honen gehiengo erabatekoaren aldetik.

miles de ciudadanos y deteniendo y encarcelando a decenas de representantes políticos. Hoy por hoy, la mayoría absoluta de este pueblo muestra su más enérgica repulsa ante esa estrategia.

Estatu espainiarraren **sakoneko defizit demokratikoa eta botere banaketarik eza** erakusten du epaiketa honek; izaera antidemokratikoa ideia politikoen defentsa eta antolatzeko eskubidea ukatzen dizkiolako euskal gizartearen zati garrantzitsu bati; eta botere banaketarik eza, PP eta PSOEren ideia politikoen eta estrategien luzapena baino ez delako epaiketa hau.

Ese juicio muestra el **profundo déficit democrático** del Estado español así como su **falta de división de poderes;** carácter antidemocrático, por que niega a una gran parte de la sociedad vasca la defensa de las ideas póliticas y el derecho a organizarse, y falta de división de poderes, porque este juicio no es más que una prolongación de las ideas políticas del PP y del PSOE.

**Udal honek interpelazioa luzatzen die eragileei guztiei,** eta gizarteari oro har, garai berria oztopatu eta honen aldeko konpromiso argia erakutsi duten ordezkari politikoak zigortzea bilatzen duen epaiketaren aurrean konpromiso aktiboak har ditzaten.

**Este Ayuntamiento lanza una interpelación a todos los agentes** y a toda la sociedad en general para que asuman compromisos activos ante este juicio que busca obstaculizar la nueva etapa y castigar a los representantes políticos que han mostrado un compromiso claro a favor de esa etapa.

**Udal honek, era berean, Estatu espainiarrari dei egiten dio** errepresioaren ildoa behin betikoz alde batera utz dezan eta herri honek egin beharreko eztabaida demokratikoari oztoporik jar ez diezaion.
Hau, honela, jarraian aipatzen diren erabakiak hartzen ditu udal honek:

**Asi mismo, este Ayuntamiento hace un llamamiento al Estado español** para que, de una vez por todas, deje a un lado la linea de la represión y no ponga obstáculos al debate democrático que debe hacer este pueblo.
Por tanto, este Ayuntamiento ha tomado las siguientes decisiones:

**1- Astigarragako Udalak, gatazkaren irtenbidea sustatzeko, dagokion jarduera instituzionalean urratsak emateko konpromisoa hartzen du.**

**1- El Ayuntamiento de Astigarraga se compromete a avanzar en la actuación institucional que le corresponde para encontrar una salida al conflicto.**

**2- Astigarragako Udalak, Epaiketa politikoak behin betikoz alde batera utz daitezen eskatzen du, zabaldu den garai berriari jarri nahi zaizkion oztopoekin amaituz.**

**2- El Ayuntamiento de Astigarraga pide que se dejen al margen los juicios políticos y se acabe con los obstáculos que se quieren poner a la nueva etapa que se ha abierto.**

**3- Astigarragako Udalak, "Bateragune" auzian inplikaturik dauden kide guztien berehalako askatasuna eta absoluzioa**

**3- El Ayuntamiento de Astigarraga exije la libertad y la absolución inmediata de todos los implicados en la causa de**

**exijitzen du, bereziki Astigarragako semea eta udaletxe honetako zinegotzi izan den Mañel Serrarena.**

**"Bateragune", especialmente en el caso del que es hijo de este pueblo y ha sido concejal de este Ayuntamiento Mañel Serra.**

**4- Astigarragako Udalak, Astigarragako semea den Mañel Serrari sekula burutu behar ez zen epaiketa honen gastuak ordaindu ahal izateko, beharrezkoa den diru laguntza eskaintzeko prestutasuna azaltzen du.**

**4- El Ayuntamiento de Astigarraga muestra su disposición a ofrecer la ayuda económica necesaria para poder pagar los gastos de ese juicio que nunca debería haberse celebrado.**

**5- Astigarragako Udalak, aldarrikapen horiekin bat eginez, "Epaiketa politikorik ez, aterabideak aurrera!" lelopean, Donostian Uztailaren 2an burutuko den manifestazio Nazionalera deitzen du.**

**5- El Ayuntamiento de Astigarraga de acuerdo con esas reivindicaciones, hace un llamamiento a la manifestación nacional que se celebrará el 2 de julio en San Sebastián bajo el lema: "Epaiketa politikorik ez, aterabideak aurrera!" ("No a los juicios políticos, sí a las soluciones").**

Ondoren, Zorione zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du mozio alternatibo bat aurkeztu dutela honako testu honekin:

A continuación toma la palabra la concejal Zorione quien señala que han presentado una moción alternativa con el siguiente contenido:

Euskadin eta Gipuzkoan garai itxaropentsuak bizi ditugu. Urte askoan, Euskadik indarkeriaren ondorioak jasan ditu. Orain, ordea, eszenatoki berri baten atarian gaude; batetik, urte horietan guztietan euskal gizarteak ETA modu aktiboan baztertu duelako; eta bestetik, ezker abertzaleak bide demokratikoak bakarrik baliatuko dituela eta indarkeria errefusatzen duela adierazi duelako.

En Euskadi y en Guipúzcoa vivimos tiempos de esperanza. Durante muchos años, Euskadi ha padecido las consecuencias de la violencia. Ahora, sin embargo, estamos a las puertas de un nuevo escenario; por un lado, por que durante todos esos años la sociedad vasca ha rechazado de forma activa la violencia de ETA y por otro lado, por que la izquierda abertzale ha manifestado que sólo utilizará los cauces democráticos y que rechaza la violencia.

Bake egoera sendotzeko demokrazia ere sakondu beharra dago. Demokrazia sakontzeak esan nahi du joko-arauak ez daudela manipulatzerik helburu politikoak lortzeko. Ilegalizazioen eta aukera demokratikoak baztertzearen estrategiek,

Para afianzar la situación de paz también hay que profundizar en la democracia. Profundizar en la democracia quiere decir que no se pueden manipular las reglas del juego para alcanzar objetivos políticos. Las estrategias de la ilegalización y de

oinarrizkoak diren eskubideak urratzeaz gain, liskarra pizten dute gizartean eta politikan eta sistemarekiko mesfidantza sortarazten. Bide hori bakearen, ongiaren eta justiziaren aurkakoa da.

arrinconar las opciones democráticas, aparte de vulnerar los derechos básicos, provocan conflicto en la sociedad y en la política y generan desconfianza en el sistema. Esa vía está en contra de la paz, del bien y de la justicia.

Bateragune epaiketa, iragan hurbilean Espainiako erakunde politiko eta judizialetan ezarritako “dena ETA da” irizpide politikoaren adierazpena da.

El juicio Bateragune es una manifestación del criterio político de “todo es ETA” que fue implantado en un pasado próximo en las instituciones políticas y judiciales de España.

Eta nahiz eta azken bi urtetako gertaera eta adierazpen politiko eta judizialek gezurtatzen duten, zentzurik gabeko irizpide hau mantentzen saiatzen da Espainiako gobernua fiskaltzaren eskutik.

Aunque los acontecimientos y las manifestaciones políticas y judiciales de los dos últimos años desmienten ese criterio, el gobierno de España por medio de la fiscalía, intenta mantener ese criterio carente de sentido.

Inputatuak izan diren pertsonen absoluzioa ekarri beharko duen zentzugabeko prozesu politiko eta judiziala.

Un proceso político y judicial absurdo que deberá llevar a la absolución de las personas que han sido imputadas.

Guzti hori dela eta, hurrengo hau onartzea eskatzen diogu Udalbatza honi:

Por todo lo anterior, pedimos a la corporación municipal que apruebe lo que se expresa a continuación:

Bateragune bezala ezagutzen den prozesuan inputatuak diren pertsona guztien absoluzioa eskatzea.

Pedir la absolución de todas las personas imputadas en el proceso conocido como Bateragune.

Dagozkion aurkezpenak egin ondoren, alkateak Imanol zinegotziari eman dio hitza, eta zinegotzi horrek adierazi du ez dagoela ados mozioaren edukiarekin bertan adierazten denaren eta errealitatearen artean kontraesanak daudelako; izan ere, Bilduk Alderdien Legea bete eta errespetatu du baina hor esaten da epaileek lege horri heltzen diotela zigorra jartzeko. Errealitatea honako hau da: ezker abertzalea eta Gobernua negoziatzen ari dira eta horren froga da Auzitegi Konstituzionalaren epaia; beraz, ezin zaie mozioan agertzen diren terminoei eutsi.

Hechas las presentaciones pertinentes el alcalde otorga la palabara al concejal Imanol quien manifiesta que no está de acuerdo con el contenido de la moción dado que hay contradicciones en lo que se expresa en la moción y lo que en realidad, dado que la ley de partidos Bildu la ha cumplido y respetado y luego dice que los jueces se aferran a esa ley para castigarlos. La realidad es que la izquierda abertzale y el Gobierno están negociando y la prueba es la sentencia del Tribunal Coonstitucional, de modo que no se pueden mantener los términos que aparecen en la moción.

EAJ/PNVko zinegotzi Zorionek parte hartu du honako hau esanez: termino globaletan ados daudela mozioarekin baina abstenitu egingo direla eta aurkeztu duten mozio alternatiboari eutsiko diotela.

Interviene la concejal Zorione de EAJ/PNV quien manifiesta que en términos globales están de acuerdo con la moción, pero que se van a abstener y mantener la moción alternativa que han presentado.

Idazkari kontu-hartzaileak hartu du hitza eta mozioaren 4. puntuari dagokionez honako hau adierazi du: gastua ez da kuantifikatzen eta nolanahi ere, idatz-zati horren edukia gizarte-zerbitzuen bidez bideratu beharko da, gizarte-laguntzen partidan bilduz aurrekontu-muga hori duten familiak.

Toma la palabra el interventor quien señala que en relación al 4º punto de la moción no se cuantifica el gasto y en cualquier caso el contenido de este apartado deberá direccionarse a través de los servicios sociales vinculando a la partida de ayudas sociales a familias con su límite presupuestario.

**Mozioa bozkatu ondoren, onartu egin da Bilduko korporatiboen aldeko 7 botorekin, EAJ/PNVko 2 abstentziorekin eta Hamaikabateko kontrako boto batekin.**

**Sometida a votación la moción se aprueba con 7 votos a favor de los corporativos de Bildu , 2 abstenciones de EAJ/PNV, 1 voto en contra de Hamaikabat.**

Ondoren, EAJ/PNVk aurkeztutako **mozio alternatiboa bozkatu da eta hori ere onartu egin da** EAJ/PNVko zinegotzien 2 aldeko botorekin eta 8 abstentziorekin (Bilduko 7 eta Hamaikabateko 1).

A continuación se somete a votación la **moción alterntiva presentada por EAJ/PNV, que es también aprobada** al obtener 2 votos a favor de los concejales de EAJ/PNV, y 8 abstenciones (7 de Bildu , 1 Hamaikabat).

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2011ko ekainaren 30ean

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkaria**